

Txirrindularitza ♦ Atzo hasi zen Kataluniako Volta, 8 kilometroko aitzin-etaparekin

Casero da lehen liderra

Abraham Olanok hirugarren denbora onena egin zuen, Peronen atzetik

Erredakzioa / Donostia

VOLTAKO lehen liderra Vitalicio Seguros taldeko Angel Luis Casero da, atzo 8 kilometroko aitzin-etapan nagusitu baitzen. Caserok 10 minutu eta 12 segundo behar izan zituen La Pineda eta Vila Seca hirien arteko ibilbidea osatzeko, Abraham Olano faboritoak baino lau segundo gutxiago. Caserok denboraldiko lehen garaipena du atzokoa.

Angel Luis Caseroren ondoren, Andrea Peron italiarrak egin zuen denborarik onena. ONCE taldekoak ezustea eman zuen, Abrahamek baino segundo bat gutxiago behar izan baitzuen. Anoetarrak ez zuen irabazterik izan, baina bera baino okerrago ibili zen Alex Zulle suitzarra. Banestokoak irabazleak baino 27 segundo gehiago behar izan zituen. Gehiegi hain ibilbide laburrean, are gehiago espezialista dela kontuan izanik. Zulle Tourra ari da prestatzen eta sasoi onean beharko luke, baina Giroaren ondoren osasun arazoak izan ditu, eta nahikoa ahul dagoela aitortu zuen atzo, helmugaratu ondoren.

Euskal ordezkarien artean, Alvaro Gonzalez Galdeano



Angel Luis Caserok biziki ospatu zuen podiumean denboraldiko lehen garaipena.

izan zen onena, seigarren postuarekin —Santos Gonzalez bosgarrenaren denbora berean—. David Etxebarriak 10. postuan amaitu zuen. Gaur jokatuiko da Voltako lehen etapa, Vila Seca eta

Tortosa hirien artean. Txirrindulariek 161,2 kilometro egin beharko dituzte, eta bi mendate gainditu: bigarren mailako La Teixeta eta hirugarren mailako Som. Esprintean amai daiteke.

sailkapenak

Aitzin-etapa eta nagusia

1. A. L. Casero (Vit)	10:13
2. A. Peron (ONCE)	3ra
3. A. Olano (ONCE)	4ra
4. G. Hincapie (US)	8ra

Lau kanporatu Suitzan, hematokrito tasagatik

Erredakzioa / Donostia

LAU txirrindularik Suitzako Itzulia bertan behera utzi behar izan dute, gehiegizko hematokrito tasa izateagatik. Sergei Gontxar (Vini Caldirola), Harald Mosrcher (Saeco), Timothy Jones eta Massimo Gimondi (Amore e Vita) dira lau kanporatuak. Atzo goizean UCIk odol kontrolak egin zizkien hainbat talderi —tartean Telekom—, eta aipatu lau txirrindulariek UCIk ezarritako %50eko mugatik gora eman eta ondorioz etxera bidali zituzten antolatzaileek.

Sergei Gontxarrek Italiako Giroko azken erlojupekoa irabazi zuen, eta iaz Valkenburgen brontzea lortu zuen erlojupekoan. Beste hiru txirrindulariek ez dute garai-

pen aipagarriarik. Gontxarren eta Mosrcherren taldeek, Vini Caldirolak eta Saecok hurrenez hurren, Tourrerako txartela dute, eta bi txirrindulariek garaiz beteko dute derrigorrezko 15 eguneko geldialdia.

Bestalde, Amore e Vita taldeko jabeak Jones eta Gimondi taldetik botatzea erabaki du.

Atzoko etapari dagokionez, Polti taldeko Silvio Martinellok irabazi zuen, esprint estuan. Sailkapen nagusian ez zen inolako aldaketarik izan, etapak ere ez baitzuen horretarako aukera handirik ematen. Eguneko protagonista nagusia Swiss Post taldeko Roger Beuchat izan zen 140 kilometro inguruko ihesaldia egin baitzuen.



Silvio Martinellok ozta-ozta irabazi zuen atzoko etapa.

sailkapenak

3. etapa

1. S. Martinello (Pol)	5:43:58
2. M. Traversoni (Sae)	d.b.
3. M. Zberg (Rab)	d.b.
4. F. Baldato (Bal)	d.b.
5. G. Lombardi (Tel)	d.b.

Nagusia

1. L. Jalabert (ONCE)	10:37:11
2. R. Petit (Sae)	14ra
3. P. Richard (Mob)	19ra
4. O. Camenzind (Lam)	22ra
5. L. Dufaux (Sae)	23ra

Triatloia ♦

Bihar hasiko da Euskal Zirkuitua, Zarauzko proba luzearekin

Jesus de la Fuente eta Aintzane Argaitz dira faborito nagusiak

Erredakzioa / Donostia

DUATLOI sasoia jada amaituta —Asier Bilbao eta Aintzane Argaitz izan dira Euskal Zirkuituko irabazleak—, bihar hasiko da triatloi denboraldia. Euskal Zirkuituko lehen proba Zarautzen jokatuiko da, eta, hasteko, denboraldi osoko probarik luzeena egin beharko dute euskal triatloilariak.

Bost triatloi probak osatuko dute aurten Euskal Zirkuitua, eta hiru hilabete iraungo du, iraila arte. Euskal Zirkuituko azken sailkapenean agertzeko, gutxienez hiru probatan hartu beharko du parte kirolariak, bai banaka, baita taldeka ere.

Gizonezkoetan Jesus de la Fuente —Zirkuituko irabazlea iaz— ageri da faborito Zarautzen irabazteko, eta emakumezkoetan Aintzane Argaitz. Duatloian denboraldi bikaina egin du Atletiko San Sebastian klubekoak, eta igerian ere majo entrenatu da, triatloian aurreko urteetako markak hobetzeko.

Zarauzkoa Euskal Zirkuituko triatloi luzeena izango da: hiru kilometro igerian, 80 bizikleta gainean eta 20 korrika.

Donostiarako izen-ematea zabalik

Zarauzko probaren ondotik, Onditzen omenezkoa jokatuiko da Donostian, Atletiko San Sebastian klubak antolatuta. Ekainaren 27an izango da Euskal Zirkuituko bigarren saioa, eta dagoeneko han parte hartzeko izen-emate epea zabalik dago. Atletikok 13 triatloi proba antolatu ditu jadanik, eta horietako hiru Munduko Txapelketarako puntuagarrir izan dira. Neurri olimpi-koa izango du probak: 1.500 metro igerian, 37 kilometro bizikletan eta 10 korrika.

Euskal Zirkuitua Lekeitio, Gazteiz, Amurrio eta Zumaia-Azkoitiko probek osatuko dute.